

“2025eko INAUTERIETAKO MAKILAJEA ” LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak antolatzen du (IFK: H20818944 eta ondorio hauetarako helbidea: Arizmendi almirantea kalea 9 – 20.302 Irun, Gipuzkoa), eta parte hartzen dutenek parte hartzeko arau hauek ulertu, onartu eta bete egingo dituzte, baldintza orokor hauetan:

Sustapen hau Internet bidez egingo da, Mendibil Merkataritza Guneak Instagrameko sare sozialean duen orrian: https://www.instagram.com/mendibil_cc

Sustapen honetan parte hartzea doakoa da, eta ez da produkturik erosi behar, ez eta kuotarik edo bestelako zenbatekorik ordaindu ere inongo kontzeptutan.

1. PARTE HARTZEKO DATAK:

2025eko otsailaren 21etik 26ra bitartean parte hartu ahal izango da, biak barne. Otsailaren 26an itxiko da parte hartzeko epea, 23:59an.

2. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK:

Espanian bizi diren 16 urtetik gorako pertsonak har dezakete parte.

Parte-hartzaileak baztertua: Edozein parte-hartzaile lehiaketatik kanpo geratuko da, baldin eta Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak uste badu modu irregularrean edo fede txarrez ari dela edo lehiaketaren funtzionamendu egokia eragozten duela. Ez da onartuko profil faltsurik erabiltzea, ez eta profilak iruzurrez erabiltzea ere.

3. PARTE-HARTZEAREN DINAMIKA:

Lehiaketa honetan parte hartzeko, parte-hartzaileek urrats hauek egin beharko dituzte:

- Mendibil Merkataritza Gunearen kontua jarraitu: @mendibil_cc
- Lehiaketaren dinamika azaltzen duen argitalpenari “like” eman, (argitaratze-data: 2025eko otsailaren 21a).
- Pertsona bat aipatu, argitalpen horretan. Zenbat eta pertsona gehiago aipatu, orduan eta irabazteko aukera gehiago.

4. SARIA:

Inauterietako bi makillaje (irabazle bakoitzeko bat), makillatzaile profesional baten eskutik eta pertsona horiek ekitaldiaren egunean eramango dituzten mozorroetan inspiratuta. Bi makillaje-saioak Mendibil Merkataritza Gunean egingo dira, martxoaren 1ean (larunbata), 11:00etatik 13:00etara.

5. SARIA ESLEITZEKO MEKANIKA:

Zozketa bat egingo da parte-hartzaile guztien artean.

Antolatzaileak otsailaren 27an jarriko dira harremanetan bi irabazleekin, Instagrameko (DM) mezu baten bidez, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko eta saria onartzen dutela adieraz dezaten.

Harremanetarako eta datuak egiaztatzeko prozesua amaitutakoan, irabazleek ekitaldiaren egunean zer moztiko jantziko duten adieraziko diete antolatzaileei, makillatzaileak makillaje-saioa presta dezan aukeratutako moztokoaren arabera. Azkenik, jakinaraziko zaie makillaje-prozesuaren eta azken emaitzaren argazkiak/bideoak egingo direla eta merkataritza-gunearen sareetan argitaratuko direla.

Irabazleek saria adingabe bati eman nahi badiote, dagokion baimena sinatu beharko dute, adingabearen irudia erabili ahal izateko.

Lehiaketaren oinarrietarako klausulak:

Eman dizkiguzun datu pertsonalei dagokienez, honako hauek jakinarazten dizkizugu:

Tratamenduaren arduraduna: Zure datuak Mendibil Merkataritza Guneko jabe-erkidegoak tratatuko ditu (IFK: H-20818944).

Helburuak eta legitimazioa: Zure datuak tratatzearen helburua da "2025eko INAUTERIETAKO MAKILLAJE LEHIAKETAN" parte hartzea.

Epea: Zure datuak behar beste denboraz tratatuko dira, datuak biltzeko arrazoi izan ziren helburu zehatzak betetzeko, haien erabileraren garrantzia galdu arte edo, nolana ere, ezereztu arte, titularrak dagozkion eskubideak egikaritu baititzake.

Hartzaileak: Zure datuak ez zaizkie emango hirugarrenei, legezko betebeharririk ez bada.

Eskubideak. Baldin eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta/edo eramangarritasunerako eskubideak erabili nahi badituzu edo zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, zure nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat erantsi eta idatzi Arizmendi almirantea kalea 9, 20302 Irun (Gipuzkoa) helbidera edo posta elektronikoa honetara: mendibil@centrocomercialmendibil.com